

IREKI BEGIAK: MODA AZKARRAREN ONDORIOAK AZTERTZEN

4.DBH Arte-proiektua – Agenda 30rekin elkarlanean

2024/2025 IKASTURTEA

Inoiz pentsatu al duzu *moda azkarrak* zein ondorio dituen? Proiektu honetan, **modaren atzean ezkutatzen den errealitatea ikertu eta moda azkarrak sortzen duen ondoriotaz hausnartu dugu**. Hasieran, ikerketa baten ostean datuak bildu eta infografiak sortu ditugu, jendeak kontsumoaren benetako inpaktua ulertu dezan.

Baina ez gara hortxe gelditu! **Arropa baztertu beharrean, berrerabili eta ARTE bihurtu dugu**. Ehun zaharrak hartu, konbinatu eta gure mezuak adierazteko erabili ditugu. Horrela, hainbat pieza sortu ditugu:

Patchwork bidez egindako tapizak, planetaren egoerari eta arropa berrerabiltzearen garrantziari buruzko mezu indartsuekin; **Transferentzia teknikaz pertsonalizatutako kamisetak**, jendea pentsarazteko esaldi eta irudi deigarriekin, akrilikoen bidezko estentzilak, tela termoadesiboa...

Prozesu honetan **jabetu gara moda ez dela bakarrik jantziak erostea**, baizik eta gure aukerek munduan duten eraginaz konturatzea. Aldaketarako prest? **Ireki Begiak!**

